

Bizarrain kultur elkarte

## BAI EUSKARARI AKORDIOA ALTZAN

### *Sarrera*

Aspaldikoa da altzatarren euskararekiko kezka. Ehunka urtez herri euskalduna izan zena XX mendeko hamarkada gutxi batzutan guztiz erdaldundu zen. Gure hizkuntzaren (eta kulturaren) egoera Altzan negargarria zen 60ko hamarkadan, eta Euskal Herrian oro har, eta horrek kezka bizia eragiten zuen. Ondorioz, hainbat altzatar euskararen

berreskurapenaren aldeko borrokan abiatu ziren, eta bide horri eutsi diogu ondotik hainbat belaunaldik ere. Lan horren ondorio dira Herri Ametsa ikastola sortu eta ikastetxe erdaldunak euskalduntzea, helduak euskalduntzeko gau-eskolak eta euskaltegiak, Euskal Herrian Euskaraz erakundearen Altzako taldea (1. irudia), aisialdian euskara sustatzeko erakundeen lana edota kultur arloan aurrera eramandako ekimenak: bertso-eskola, toponimia berreskuratzea, jaien antolakuntza...



1. irudia

70 eta 80ko hamarkadetan Euskal Herriko gizarte mugimenduak egindako lan eskergak ekarri zuen herritarrak euskararen berreskurapenaren beharraz jabetzea. Hala, 90 hamarkadaren hasieran, jauzi handia egin zuen euskararen ezagutzak: geroz eta guraso gehiagok eskolaratzen zituzten haurrak D ereduan, euskaltegietan ikasle kopuruak gora egiten zuen etengabe eta lan arloa euskalduntzeko lehen urratsak eman ziren.

### ***Bizkorrago joan beharra***

Baina 90eko hamarkadaren amaieran egoera ez zen hain baikorra. 1998an, *Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua* sortu zen euskalgintzako erakunde eta enpresa askoren ekimenez. Erakunde berriak euskararen berreskurapen osoa aldarrikatzen zuen, normalizazioa erdiestea, euskararen egoera honela ikusten baitzuen: *“Euskararen normalkuntza doan bezala ez doa ondo. Azken 20 urteotan euskarak izugarri egin du aurrera arlo askotan, baina oraindik bere etorkizuna ez dago segurtatuta. Gaurko erritmoekin berrehun urte barru oraindik normalizazioa lortu gabe egon daiteke. Euskararen etorkizuna bermatzeko prozesua bizkortu beharra dago, euskarak garatzen segitu behar du bere lurralde osoan eta etorkizunerako funtsezkoak diren erabilera-esparruetan. Horretarako ezinbestekoa da gizarte osoak bere egingo duen etorkizuneko konpromisoa gauzatzea.”*

Hain zuzen ere, egoeraren azterketa orokor horrek bat egiten zuen Altzako egoerarekin. Gure herrian ezagutzan aurrerapausoak eman ziren euskaldun gehiago ateratzen baitziren ikastetxeetatik eta euskaltegietatik, baina haien hizkuntza gaitasunak eta euskaldunen dentsitateak ahulegiak izaten jarraitzen zuten. Gainera, Altzan euskara erabiltzea ia ezinezkoak zen. Horregatik, Altzan euskararen berreskurapena bizkortzeko asmoz, bertako euskalgintzako hainbat erakundek eta euskaltzale solte batzuek<sup>1</sup> *Altzako Bai Euskarari Batzordea* osatu genuen, 1999ko urrian.


Kontseiluari jakinarazi genion urtebete lehenago Euskal Herriko bost estadio euskaltzalez betez abiatu zuen *Bai Euskarari Akordio eta Konpromiso Prozesua* Altzan ere garatu nahi genuela. Baina, artean, erabaki gabe zuen konpromiso prozesua herrietara eramatea.

Erabakia iritsi bitartean, batzar zabal bat antolatzen hasi ginen Euskal Herri mailako konpromiso prozesuan parte hartzen ari ziren entitateen Altzako ordezkariari ordura arte Kontseiluak egindako lanaren berri emateko. Batzarra 2000ko maiatzean egin genuen.

---

<sup>1</sup> Euskaltzale solteak, Azpil AEK euskaltegia, Altza euskaltegia, Altzako EHE, Herri Ametsa Ikastola, Txalaka elkarte eta Zurrunbilo Komunikazio Taldea. Altzako Instituta laguntzeko prest azaldu zen.

2000ko urrian, Bai Euskarari Akordio eta Konpromiso Prozesuaren bilakaera positiboa izaten ari zelako, herrietaratzea erabaki zuen Kontseiluak, eta herri-pilotu izateko hautagaitarako aurkeztu zen Altzako Bai Euskarari Batzordea (2. irudia). Herrietako prozesua bi urrasetan garatuko zen: lehenbizi esperientzia pilotu batzuk jarriko ziren abian eta, ondoren, esperientziak orokortu egingo ziren. Ekimen honen bidez, herrietako enpresen, saltokien eta era guztietako entitateen eskutik, eta tokian tokiko udalarekin batera, konpromiso prozesu bat bideratuko zen, herri mailako Euskararen Plan Estrategikoa eginez.



2. irudia

2000ko azaroaren 14ean jakinarazi zigun Kontseiluak onartuak izan ginela.

Hurrengo urratsa Donostiako udalera jotzea zen. Euskararen normalizazioaren aldeko lanean instituzioen eta euskalgintzaren elkarlana funtsezkoa da. Horregatik hasieratik bermatu nahi izan dugu parte inplikatu guztien partaidetza.

Udalari proposamena egiterako, Altzako gizarte eragile garrantzitsu eta erreferentzial batzuen adostasuna eskuratu genuen; hala nola, Juan Mari Irigoien idazlea, Koldo Cacho apaiza, Larratxoko Euskadiko Kutxa, Alzaprint enpresa eta Altzako ESK-CUIS sindikatua. Gainera, Donostiako euskalgintzako 11 erakundek<sup>2</sup> azaldu zuten gure ekimenarekiko atxikimendua. Horiek hala, urtea bukatu baino lehen eman genion sarrera bilera eskariari Donostiako udaletxean. Ekimena abiatu

genuenetik 14 hilabete luze joanak ziren, baina gure ilusioak aurrera egiten laguntzen zigun. Artean ez genekien oraindik beste urte bat igaro beharko genuela bileraz bilerara, Donostiako Udalaren behin betiko baiezkua lortzeko, eta hori benetan etsigarria izan zen.



3. irudia

<sup>2</sup> Arrano Beltza euskal-tokia; Axular Lizeoa; Bagera elkarte; Amara Berri AEK, Gotzon Aleman Intxaurrendoko AEK, Hitzez, Ulialde eta Urrats euskaltegiak; Donostiako Bankako Euskara Batzordea; Gaztetxulo eta Irutxulo aldizkariak.

Udalarekiko hitzarmena egin ahal izateko, Altzako Bai Euskarari Batzordea desegin eta *Bizarrain Kultur Elkarte*a sortu eta legeztatu genuen 2001eko irailaren 6an (3. irudia).

Askok galdetu digute izen horren jatorriaz, eta azalduko dugu: M. Laboak abestu zuen Arestiren *Egun da Santi Mamiña* olerki ezagunaren “euskara salbu ikusi arte ez dut moztuko bizarra” hitzak, eta Altzako mugan dugun *Bizarrain* mendia-  
ren izena uztartzen dituen hitz jolasa da; bizarra moztea bizarra egitea baita. Logo-  
tipoiari dagokionez, leloa esaten ari den bizardun baten irudiaren garapena da.

### *Altzako bai euskarari akordioa abian*

Hamabi hilabetez atzera eta aurrera ibili ostean, 2001eko abenduaren 13an sinatu zuen Bizarrain elkar-  
teak elkarlan hitzarmena Donostiako udalarekin eta Kontseiluarekin, uda-  
letxean egin zen ekitaldian (4. irudia). Hitzarmen honen luzapenak sinatu  
dira hurrengo urteotan.

Hitzarmenean jasota dago “Euskararen Ekimen Estrategikoak. Donostiako Plan Orokorra” Altzan burutzeko Altzako gizarte eragile ezberdinekin Bai Euskarari Akordio eta Konpromiso Prozesu parte hartzailea bideratzea adostu dugula...

- Ekimen horien aplikazioa euren errealitate eta baldintza zehatzetara egokitzeko lanean inplika daitezten.



4. irudia. R. Etxezarreta (zinegotzia), A. Hernandez (Bizarrain), O. Elorza (alkatea) eta X. Mendiguren (Kontseilua).



5. irudia. Jarraipen Batzordeko kideak 2003ko apirilean: L.M.Ralla (Bizarrain), Z. Etxeburua (Kontseilua), E. Otamendi eta A. Ibabe (Udala), B. Fernandez (Institutua), A. Hernandez (Bizarrain), Koldo Cacho (San Pablo eliza), S. Soria (Bizarrain), A. Mujika (Batzen) eta J.A. Peñuelo (Auzoa).

- *Altzatarrek DEPOren ekimenak beren berezkoak egin eta "BIZARÁ IN" Kultur Elkarateak aurkeztutako Bai Euskarari Akordio eta Konpromiso Prozesua burututa hartuko dituzten konpromisoak errazago har ditzaten.*

Altzako Bai Euskarari Akordioaren prozesua metodologia egokiz eta zorrotasun eta kontrol handiz bideratu da hasieratik. Hitzarmenean adostu bezala, prozesuaren zuzendaritza eta koordinazioa Bai Euskarari Akordioaren Jarraipen Batzordearen (5. irudia) gain dago. Berau ondokoek osatzen dute: Donostiako Udalak, Altzako entitateen ordezkariak eta bertako euskararen gizarte erakundeen ordezkariak. Donostiako euskalgintzaren elkargunea den Batzen erakundeak ere parte hartu du gonbidatuta. Kontseiluak ere parte hartzen du, botorik gabe eta aholkulari moduan. Batzorde honi dagokio ikuskaritza egitea, kudeaketa plana eta aurrekontua onartzea, lan talde teknikoa aukeratzea eta prozesuan eragin dezaketen gainerako erabakiak hartzea. Jarraipen Batzordearen lehen bilkura 2001eko azaroaren 28an egin zen.



6. irudia. Jon Sanchez eta Jon Ander Vega

Konpromiso prozesuko lan teknikoa egiteko, Jon Ander Vega eta Jon Sanchez altzatarrek hautatu zituen Bizarrainek (6.irudia). Euskalgintzan arituak eta euskal filologian ikasketadunak, biak hala biak.

### *Konpromiso prozesua atalka*

Konpromiso prozesuaren protagonistak Altzako enpresak, saltokiak eta gainerako entitateak dira. Lehen fase batean Ikastetxeak, Kultura, Gazteen aisialdia eta Kirolaren arloak landu genituen. Bigarren fase batean, beste hiru gizarte arlo hauetara zabaldu zen ekimena: Lan mundua, Merkataritza-Ostalaritza eta Zerbitzuak.

#### **Lau une nagusi izan ditu prozesuak (7. irudia):**

- **Akordioaren unea**

Prozesuaren berri eman entitateei eta bertan parte hartzera gonbidatzeko unea. Teknikariaren lehenengo egin beharra izan zen jorratuko genituen Altzako alorreta-

ko entitateen unibertsoa zehaztea. Ez bai-kenuen jo arlo bakoitzeko eragile guztiengana, besteengan eragina izan zezaketenak lehenetsi ziren hasieran. Hori bai, gure asmoa Altzako entitate guztiengana iristea da, une ezberdinetan bada ere.

Prozesuaren bi faseak kontuan hartuta, 206 entitaterengana jo zen, eta 90ek sinatu zuten Bai Euskarari Akordioa (8. irudia). Akordio horren arabera, entitate horiek adierazten dute *euskarak garapen osoa lor dezan bere normalizazioa behin betiko bideratuko duen prozesu batean eskuartze-konpromisoa hartzen dutela. Gainera, Prozesu hori hizkuntz normalizaziorako Plan Estrategiko bat prestatuz eta ezarriz burutzeko prestasuna azaltzen dute.*



7. irudia



2002-2-6



2007-5-15 / 8. irudia

Sinatzaile kopurua aurreikusitakoa izan zen, beraz, balorazio ona egiten dugu. Hala ere, lan hau bi fasetan egin zenez, bigarren aldiko eragileek ezagutza handiagoa zuten, eta alor horietako eragileak erraz erakarriko genituela uste genuen, baina ez zen hala izan. Ahalegin handia egin behar izan zen eta epeak luzatu ziren. Honen zergatia fase biotako arloen arteko ezberdintasunean kokatu dugu: bigarren fasekoak helduen bizimoduari zuzenean lotuak, eta lehenengoak gazteekin zerikusia dutenak; gazteekin lan egiten dutenak erakartzeko errazagoak izan ziren, euskara “gertuago” dute. Hain zuzen ere, Altzan euskarak arazo nagusia non duen konstatatu zen.

#### • Euskararen Plan Estrategikoa

Ekimen hau erronka izan zen Bizarrain elkartearentzat, euskararen inguruko gogoeta estrategikoa Altzako gizarte alor ezberdinekin egingo baitzen. Bizarraingo teknikariek dinamizatuta, entitateetako ordezkariak beraiek aztertu zuten euskarak beren sektoreetan zuen egoera, eta beraiek proposatu zituzten neurri normalizatzaileak. Urrats hau Kontseiluaren eta Euskararen Udal Patronatuaren aholkularitzarekin egin zen.

Plana hiru urratsetan diseinatu zen: Lehenengo lan bileran (9. irudia) sektore bakoitzean euskararen egoeraren *diagnostikoa* egin zen. Bigarren lan bileran hizkuntz normalkuntzaren bidean zuzendu beharreko *helburuak* erabaki zituzten eragileek. Hirugarren lan bileran helburu horiek zehaztuko zituzten *ildo estrategiko eta ekintzak* zerrendatu ziren. Ildo horiek izango ziren eragileei proposatuko zitzaizkien konpromisoak. Plan estrategikoaren kronologia:

	Lehen fasea 2002	Bigarren fasea 2003
1 bilera	Otsaila	Maiatza
2 bilera	Martxoa	Ekaina
3 bilera	Apirila	
Emaitzen aurkezpena	Maiatza	Iraila

Akordioaren sinatzaileen % 77ak hartu zuen parte planean modu batera edo bestera. Lan bileretako asistentzia apala izan zenez, bigarren faseko hiru bilerak bitan egitea erabaki zen, eragileei gauzak errazte aldera, baina ez zuen eraginik izan. Egoerari aurre egin zitzaion banan-banako bilerak eginez eta sintesiak helaraziz eragile bakoitzari.



9. irudia

Nabarmentzekoak dira egin ziren ekarpenak. Pozik gaude egin den diagnostia zorrotza, bertakoa eta egokia iruditzen zaigulako. Gainera, euskarari iskin egiten dioten sektoreetako erakunde askok euskararen garabidez beren uste eta iritziak eman eta adosteko aukera izan dute lehen aldiz. Altzan, hori oso urrats esanguratsua izan da. Hona hemen ondorio nagusienak:

### *Aldeko faktoreak*

Gurasoek D ereduaren alde egitea eta geroz eta gazte gehiagok jakitea euskaraz; erakundeetan euskaldunen gehitzea; euskarazko eskaerak gora egitea eten-gabe; zerbitzua bezeroaren hizkuntzan eskaintzea balio erantsia izatea: euskara erabiliz, irudi berriztatzailea, bizia eta eraginkorra islatzen da, eta zerbitzu eta irudi komertzial osoagoa ematen; euskara kalitate eta hobekuntza prozesuetan sartzen aritzea; gazteek euskaraz ikastea, kontratazio berrien mesederako; enpresak

eta erakundeak euskararen alde agertzea eta hizkuntzaren alde egiten diren ekimen zabal eta integratzaileak (Korrika, Kilometroak...).

### *Aurkako faktoreak*

Euskararen ezagutza urriegia (askok ez zuten jaso bere garaian eta hezkuntzan eredu sistemak porrot egin du); gazte askok euskara eskolarekin lotzea, elementu ezkor gisa; erabilera oso apala izatea oraindik lagunartean, aisian, sendian, enpresetan, erakundeetan, hedabideetan...; bezeroen eskaerak aurrera ez egitea (ez gara ohartu euskarak egunerokoan tokia baduela); agintariak euskara testimonialki erabiltzea: hezkuntza osoa ez da euskaraz, euskara ikasteko ordaindu behar da eta laguntza ekonomikoak urriak dira; hizkuntza politikoki erabiltzea; lan munduan oztupoak izatea: enpresek ez dute normalkuntzarako aski baliabiderik, ordutegiak ez du errazten, terminologia ez da ezagutzen...

### *Proposamenak*

Hezkuntza D eredu sustatu. Eskolatik kalera atera euskara. Enpresa eta erakundeek normalkuntza planak egiten eta aplikatzen lagundu, euskara lan hizkuntza bilakatu. Erakunde eta enpresentzako euskara ikastaroak sortu. Hezkuntza iraunkorren euskarari lehentasuna eman. Sektore osoak inplikarazi euskalduntzean. Instituzioen laguntza, aitzakia ekonomikorik ez izateko. Laguntzen berri ondo eman. Agintariak euskararen erabilera eredu garri izan eta herritarroei zuzendutako sentsibilizazio kanpaina gehiago egin: euskalduntzea inbertsioztat aurkeztuz, euskaldunengan euskararen erabilpena bultzatuz (euskara erabiltzera eraginez enpresei) eta euskara bertakoa eta guztiona dela ikusaraziz.

#### • *Konpromisoen unea*

Bai Euskarari Akordioaren unetik garrantzitsua da. Bizarrain elkarteko teknikarien laguntzaz, beren erakundeak euskalduntzera iristeko konpromiso zehatz eta borondatezkoak hartu eta praktikan ezartzen dituzte Altzako enpresa, saltoki eta era guztietako hainbat entitatek.

Konpromiso hartzaileei *Bai Euskarari Ziuertagiria* (10. irudia) eskaintzen zaie. Ziuertagiriaren bidez, konpromisodunek normalizazioaren alde eginiko lana kreditatzen du Kontseiluak, eta entitateek euskararekiko konpromisoa gizarte osoari adierazten diote. Halaber, zerbitzuak euskaraz jasotzeko dagoen es-



10. irudia



kari sozial geroz eta handiagoa-  
ren erantzuna topatzen dute he-  
rritarrek Bai Euskarari Ziu-  
rtagiaren irudian, entitateen kon-  
promisoaren isla bertan izango dute-  
lako. Hiru maila ditu:

*Bidean:* Euskararen normaliza-  
ziorako gutxieneko neurriak har-  
tzen eta garatzen ari diren era-  
kunderi zuzenduta.

*Guk Zerbitzua Euskaraz:* Zerbi-  
tzua euskaraz eskaintzen duten  
erakunderi zuzenduta.

*Guk Zerbitzua eta Lana Euskaraz:* Zerbitzua euskaraz eskaini eta lan hizkuntza-  
tzat euskara duten erakunderi zuzenduta.

Lehenengo konpromiso hartzeak 2003 eta 2004 urteetan izan ziren. Bai Euska-  
rari Akordioa sinatu zuten 90 entitateetatik 75ek hartu zituzten konpromisoak, eta  
horietatik 23k eskuratu zuten Bai Euskarari Ziu-rtagiria, 2004ko ekainaren 8an egin-  
dako ekitaldian (11. irudia).

### ***Konpromiso prozesuaren hedapena***

Hartutako konpromisoen ezarpenaren segimendua egiten du Bizarrainek, ur-  
tean behin ebaluazio bilera eginez eta ezarpenean laguntza eskaintzeko harrema-  
nak mantenduz urtean zehar (banan-banako bilerak eta entitate guztien arteko ur-  
teko segimendu-batzarra). Beren konpromisoak aurrera eramateko laguntzak (di-  
ru-laguntzak, hiztegiak, euskarazko zerbitzuak...) topatzen eta itzulpen txikiak  
eginez laguntzen diegu.

Baina konpromiso prozesua abiatzen duten guztiek ez dute bururaino erama-  
ten, batzuk desagertzen direlako edota nagusiak aldatzen dituztelako, eta beste  
batzuk uztea erabakitzen dutelako. Era berean, Bai Euskarari Akordioan parte har-  
tu ez zuten entitate berriengana jotzen dugu urtero, konpromiso prozesua Altza-  
ko entitate guztietara eramateko asmoz. 2005ean, 35 gizarte eragile berriri egin  
zaie bisita eta 12k bete dute konpromisoen fitxa. Azken horietatik 8k eskuratu du-  
te Bai Euskarari Ziu-rtagiria. Beraz, gaur egungo egoera hauxe da: 62 konpromiso  
hartzaile ditugu eta horien artean, 33k dute Bai Euskarari Ziu-rtagiria:



**11. irudia**

1. Azpil AEK euskaltea
2. Albeitar clínica veterinaria
3. Altza Herri Ikastetxea
4. Altzako Historia Mintegia
5. Altzako Udal Bulegoa
6. Auro E. Koop.
7. Buenawista Prolekziom's
8. Casares Kultur etxea
9. eDonostia.net – Altza
10. Ekidin seguridad y sistemas
11. Estévez eraikuntzak
12. Gastelurrutia farmazia
13. Gopi restauraciones
14. Gresi taberna
15. Gurea elkarte
16. Harri Berri haur eskola
17. Harri Berri-Oleta ikastetxea
18. Herrera herri ikastetxea
19. Herrerako Sporting
20. IES Altza BHI
21. Irish Republic Pub
22. Karmentu belardenda
23. Kattagorri argazkidenda
24. Mari Paz ileapaindegia
25. Núñez burdindegia
26. Roteta haur eskola
27. Roteta haur txokoa
28. Vallina taxiak
29. Valverde taberna
30. Zumardi taberna.
40. Ereiten kultur zerbitzuak
41. Estankoa, 51. zbka
42. Goiz Alde gozotegia
43. Herri Ametsa ikastola
44. IAE aholkularitza, SLU
45. Imanol harategia
46. Iñaki Gurrutxaga harategia
47. Ipotx taberna
48. Jobilan Koop. E.
49. Lanbroa taberna
50. Marqués-Múgica aholkularitza
51. Menabi – Skoda SL
52. Nagore loteriak
53. Nao Etxea jubilatuta eta pentsionisten elkarte
54. Nido taberna
55. Peñuelo paper-denda
56. Rosa zapata-denda
57. Santa BarBara taberna
58. Solozabal autoeskola
59. Super BM Larratxo
60. Valentin López iturgintza
61. Zelaia farmazia
62. Zugasti jantziak

Bai Euskarari Ziurtagiria dutenak

31. Alai loradenda
32. Altza euskaltea
33. AltzaTV.com
34. Anaiak taberna-erretegia
35. Arri Berri akademia
36. AUZOA merkatarien elkarte
37. Barrio taberna
38. Brintza SL aholkularitza
39. Eraikuntza Institutua



**Ziurtagirien banaketa ekitaldia  
2005eko ekainak 8**

### *Eragite lana / komunikazioa*

Altzatarren artean konpromiso prozesuaren aldeko giroa indartzeko, ekimen ezberdinak abiatu ditugu: eskuorriak buzoiratu, telebistarako spota sortu eta Tele Donostin emititu, hedabide ezberdinetan elkarrizketak eta erreportajeak bideratu (Berria, Irutxulo, Vivir en Altza, Altza TV, Hitza...), emaitzak aurkezteko bazarrak, "Gure konpromisoaz, Bai Euskarari!" kartela, Bai Euskarari horma-irudiak margotu jaietan, Herrerako Sporting taldearekin eguberritako Bai Euskarari futbol torneoa antolatu eta abar. Azpimarratzekoa dira bi ekimen:

- Kontseiluak sustatzen duen **Norbanakoen Konpromiso Prozesua**.

Euskaraz bizitzeko ahaleginean urrats sendoak ematera gonbidatzen ari gara altzatarrei.

- **Euskaldun Berriari Aitortza Altzan**.

Altzan euskara ikasteko saiakera eta ahalegina egin dutenek merezi dute gure aitortza eta zorionik beroena. Aitortza publikoa eta egunero isla izango duena nahi dugu. Horregatik, eskultura baten bidez egitea proposatzen dugu. Egitasmoa herri-erakundeei aurkeztu diegu Altzan euskararen irakaskuntzan ari diren entitateen babesarekin, eta dagoeneko Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntza garrantzitsua eskuratu dugu. Eusko Jaurlearitzaren HABE erakundeak oso begi onez hartu du. Donostiako udalaren urteroko dirulaguntza deialdian ere egin dugu eskaria.

### **BALORAZIOA**

- **Helburuak**

Altzan euskarari bultzada eman eta normalizazioan aurrera egitea izan zen Bizarrain elkartearen sortzeko arrazoa. Herritarrek euskararen inguruan hitz egitea, kontzientziaztea eta urrats zehatzak ematea, euskara euskal mundutik atera eta erdaldunengana iritsiz. Gainera, euskalgintzaren batasuna behar genuen helburu anbiziotsu batekin (ez betiko euskal jaia...).

- **Lorpenak**

Konpromisoak hartu dituzten entitateez gain, herritar askorengan zabaltzen ari gara normalizazioaren esanahia. Konplizitate batzuk sortu dira eta euskararen alde zerbait egiteko gogoari aurrera egiteko aitzakia eman diogu.

Donostiako Udalaren inplikazioa lortu da, jarrera berri bat, eta bide bat ireki dugu Donostiako auzoen mesedetarako.

Altzako euskalgintzan erreferente berri indartsua bilakatu gara.

Altzan, 2005eko irailaren 30ean.